

Zein da zure bezeroa?

Behar ezberdinak dituzten pertsonak dira komun hauen bezeroak. Adibidez, komunera joateko beharra, hilerokoa duen pertsona batek aldatu behar dueneko beharra, umea aldatzeko beharra... bete ditzake komun hauek. Gure komunek, beraien beharrak aseko dituzte, ez bakarrik komun arruntek eskaintzen dituzten zerbitzuak.

Zein dira bezero horien ezaugarriak?

Pertsona guztiek beharrak ditugunez, maiz izaten dugu gure hondakinak kanporatzeko beharra. Baina egia da, batzuetan kalean egonda, gure etxeko komuna botatzen dugula faltan. Hori ez da gertatzen bakarrik higiene desberdintasunagatik, horretaz gain, ez ditugu komun publikoetan etxean ditugun zerbitzu guztiak izaten. Horregatik horietako hainbat behar asetzeko eskaintzen ditugu komun hauek, higiena eta txukuntasuna zainduz beste gauza batzuetaz gain.

Gure bezeroak edozein sexu eta adinekoak izan daitezke.